

LEHENENGOA.- SUSTAPENAREN ENPRESA ANTOLATZAILEA

CAJA RURAL DE NAVARRA, Sociedad Cooperativa de Crédito (aurrerantzean, Rural Kutxa; helbidea: Foruen plaza 1, 31003 Iruñea; IFZ: F31021611) enpresak Euskal Herri mailan parte hartzeko sustapen hau antolatu du sustapen-helburuekin, adinez nagusi diren erabiltzaileentzat bakarrik, parte hartzeko baldintzen atalean ezarritakoaren arabera.

BIGARRENA.- HASIERA- ETA AMAIERA-DATA

Sustapena 2025eko uztailaren 1ean hasiko da, 00:00etan, eta 2025eko irailaren 30ean amaituko da, 23:59an (ordu penintsularra).

HIRUGARRENA.- PARTE HARTZEKO BETEKIZUNAK ETA SUSTAPENAREN MEKANIKA**3.1.- PARTE HARTZEKO BETEKIZUNAK**

3.1.1.- RURAL KUTXAREN EGUNGO BEZEROAK: Honako hauek dira Rural Kutxaren bezeroek parte hartzeko baldintzak, baldin eta 2025eko uztailaren 1a baino lehen alta emanda badaude erakundean:

- Adinez nagusi diren pertsonak parte hartu ahal izango dute.
- Sustapenaz baliatzeko, Rural Kutxaren “GOZATU SEGURU PLANARI” atxiki behar zaio 2025eko uztailaren 1etik irailaren 30era bitartean.

“Gozatu Seguru Planari” dagokionez, honako hauek dira hari atxikitzeko betekizunak:

Gozatu Seguru Planeko kide izan ahalko dute soilik Espainian bizi eta adinez nagusi diren pertsona fisikoek, baldin eta, horrez gainera, honako betekizun hauek betetzen badituzte:

A) Baldintza hauetan sartutako produktuen gutxienez bi poliza, edo, dagoeneko baten bat kontratatuta eta indarrean balu, baldintza hauetan ezarritako betekizunak betetzen dituen poliza bat kontratatu izana, hartzaile gisa, RGA Mediación, OBSV SA enpresaren bitartez.

b) Poliza horiek Multilasaitasun* tarifa laura atxikita egotea (Istripuen Plan Berezia eta Senior Istripuak istripu-polizak izan ezik).

c) Polizak indarrean egotea eta ordainduta izatea Multilasaitasun tarifa lauan.

d) Planarekin lotutako poliza guztiak Rural Kutxaren bitartez kontratatu izana.

e) Berariaz onartzea planean sartzea, eta, beraz, bertan parte hartzeko baldintza hauek onartzea.

* Multilasaitasun tarifa lauaren zerbitzua 12 hilabetez geroratzeko sistema bat da; horri esker, aseguru bakoitza epemugan edo kontratazioan bertan sartuko da, eta 12 kuota berdinduta ordaindu ahal izango dira, interesik, komisiorik edo kostu osagarririk gabe, % 0ko UTBarekin. Zerbitzua kreditu-txartel birtual baten bitartez gauzatuko da, helburu horretarako soilik izango dena, eta ez du jaulkipen-kosturik edo mantentze-kosturik izango.

Zerbitzua eskuratzeko, aseguruaren kontratatzaileak finantzaketaren titularra izan beharko du, eta kontratuen ordainketa urterokoa izan beharko da. Finantzaketa aurrez onartu beharko da. Multilasaitasun tarifa lauaren zerbitzuak honako hauek barne har ditzake: Bizi-arrisku aseguruak, honekin kontratatutakoak: RGA Rural Vida SA de Seguros y Reaseguros (IFZ: A-78.229.663; DGSFPko gakoa: C-595). Etxe, heriotza, istripu, merkataritza, ehiztari eta aldi baterako ezintasunen aseguruak, honekin kontratatutakoak: RGA Seguros Generales Rural SA de Seguros y Reaseguros, (IFZ: A-78.524.683; DGSFPko gakoa: C-616). Auto-aseguruak, honekin kontratatutakoak: Generali Seguros y Reaseguros SA (IFZ: A-48037642; DGSFPko gakoa: C-0467), Reale Seguros generales SA (IFZ: A78520293; DGSFPko gakoa: C-0613) eta Mapfre España (IFZ: A-28141935; DGSFPko gakoa: C-0058).

Multilasaitasun tarifa lauaren adibidea:

Taldekatutako aseguruak: arrisku anitzeko etxeko aseguru, 180 euroko urteko primarekin eta istripu-aseguru bat, 120 euroko urteko primarekin. Guztira 300 euroko finantzaketa, 12 hiletan ordaindu beharrekoa, hilean 25 euroko kuotarekin bakoitza; bi aseguruengatik epeka ordaindutako guztizko zenbatekoa: 300 €. % 0an aplikatutako interes-tasa nominala (ITN). Urteko tasa baliokidea (UTB): % 0. Zordundutako guztizko zenbatekoa: 300 €, 25 euroko 12 kuota. Eskura ordaintzeko prezioa: 300 €. Epeko guztizko prezioa: 300 €.

Honako hauek dira hartzaileari Gozatu Seguru Planean sartzeko aukera emango lioketen gutxieneko urtekotutako guztizko primak eta produktuak:

Arrisku anitzeko etxeko aseguria: 150 euroko gutxieneko guztizko prima eguneratua.

Heriotza-asegurua: 150 euroko gutxieneko guztizko prima eguneratua.

Istripu-asegurua: 100 euroko gutxieneko guztizko prima eguneratua.

Bizi-asegurua (1): 100 euroko gutxieneko guztizko prima eguneratua.

1. eta 3. kategoriako auto-asegurua (2): 180 euroko gutxieneko guztizko prima eguneratua.

(1) Lotu gabeko bizi-asegurua.

(2) Baimendutako gehieneko pisua <3.500 kg duten turismo eta furgonetetarako auto-asegurua eta motozikleten eta ziklomotorren aseguria, RGA Mediación bidez kontratatua hauekin: Liberty Seguros, Mapfre, Reale eta Mutua Tinerfeña.

Gozatu Seguru Planaren ondorioetarako, produktu beraren gehienez hiru poliza kontabilizatuko dira.

Gozatu Seguru Planean sartzeko ez dira baliozkotzat joko zorroan dagoeneko badagoen poliza bat ordezkatzeko kontratatzen diren polizak, hau da, hartzaileak aseguru-adar beraren barruan arrisku berberagatik kontratatzen dituenak, aurreko bat ezeztatu ondorengo hiru hilabeteren barruan.

GOZATU SEGURU PLANERA 2024ko apirilaren 1a baino lehen atxikita egonez gero, beste aseguru bat kontratatu beharko da Rural Kutxaren bitartez, honako hauen artetik:

Arrisku anitzeko etxeko aseguria: 150 euroko gutxieneko guztizko prima eguneratua.

Heriotza-asegurua: 150 euroko gutxieneko guztizko prima eguneratua.

Istripu-asegurua: 100 euroko gutxieneko guztizko prima eguneratua.

Bizi-asegurua (1): 100 euroko gutxieneko guztizko prima eguneratua.

1. eta 3. kategoriako auto-asegurua (2): 180 euroko gutxieneko guztizko prima eguneratua.

(1) Lotu gabeko bizi-asegurua.

(2) Baimendutako gehieneko pisua <3.500 kg duten turismo eta furgonetetarako auto-asegurua eta motozikleten eta ziklomotorren aseguria, RGA Mediación bidez kontratatua hauekin: Generali Seguros, Mapfre, Reale eta Mutua Tinerfeña.

3.1.2.- RURAL KUTXAREN BEZERO BERRIAK: sustapenean parte hartu ahal izango dute honako hauek:

-Adinez nagusi diren bezero berriak, 2025eko uztailaren 1etik 2025eko irailaren 30era, biak barne, arestian aipatutako datetan ageriko akordio bat irekitzen dutenak.

LAUGARRENA.- SUSTAPEN-OPARIAK

Hirugarren puntuan adierazitako promozio-baldintzak bete eta Euskadiko 92 bulegoetako batean maillota berariaz eskatzen duten lehenengo 300 pertsonak Caja Rural-Seguros RGA ziklismo-taldeko edizio bereziko maillota jasoko dute.

Horrez gain, Ordiziako Klasikoko bazkide babesleei 2025eko kuota (40 euro) itzuliko zaie, baldin eta Rural Kutxako bezero badira eta gure bulegoetan eskatzen badute. Eta gazteei (31 urtetik beherakoak), Rural Kutxako bezero badira, 2025eko kuota (20 euro) ez ezik, 2026ko bazkide babeslearen kuota ere (20 euro) itzuliko zaie, hala eskatzen badute.

BOSGARRENA.- BAZTERKETAK

Sustapen honetatik kanpo geratuko dira Rural Kutxako langileak, haien ezkontideak eta seme-alabak.